

HITZAAGENDA

**OARSO BIDASOKO EUSKALDUNON
KULTUR AGENDA**

ekainaren 1etik 15era



ELSSIE XALBADORREN “ORTZADARRA” proiektuaren ipuin kontaketa

Munduan familia eta pertsona mota asko daude. Garrantzitsuena maitasuna da. “Ortzadarra”, estereotipo, generu eta sexuaren dibertsitatea lantzeko ipuinak dira. 6 urtetik gorako umeentzat.

- ekainak 3 (asteartea), 17:30
- Aldakonea Udal Biblioteka



MENDIA antzezlanak

Emakume batek bere zortzimilakoari egiten dio aurre. Bere mamuekin topo egitera joateko espedizio zirkularra da. Bi indarren arteko topaketa katartikoa da Mikele Urrozen obra, Eztena jaialdiaren egitarauaren barruan jasotakoa.

- ekainak 5 (osteguna), 20:00
- Niessen Kulturgunea



ERREKA ONDOAN, BI GEZUR antzezlanak

Eztena jaialdiaren egitarauak, Nerea Gurrutxaga eta Oihana Vesga dantzari eta sortzaileek osatzen duten Mari Zaunka kolektiboaren obra dakar. Dantza, ahotsa eta testua uztartzen ditu, eta kondaira du sormen prozesuaren abiapuntu eta kokaleku.

- ekainak 6 (ostirala), 20:30
- Lekuona fabrika



ILLUMBE AKORDEOI ORKESTRAREN kontzertua

Maria Magdalenaren Lagunak Kultur Elkartearen eskutik.

- ekainak 7 (larunbata), 20:00
- Madalena Basilika



MOZART & ZARIA KORU ESKOLA **saio musikala**

Zaria Koru Eskolaren eskutik, Wolfgang Amadeus Mozarten musikan zehar egingo da saio hau, "Figaroren ezkontzak" operako eszenekin eta "Do minor Meza Handiarekin" osaturiko ikuskizun honekin.

- ekainak 15 (igandea), 19:00
- Lekuona fabrika



GAIZKI ULERTUA antzezlan

Soinuenea fundazioak antolatua.

- ekainak 1 (igandea), 19:00
- Landetxe Kultur Aretoa (Oiartzun)



METRAIA film labur lehiaketa

Oiartzungo Gazte Sortzaileen eskutik.

- ekainak 8 (igandea), 19:30
- Landetxe Kultur Aretoa (Oiartzun)



LORATZEN antzerki, musika eta zirku ikuskizuna

Zirkun Zirko konpainiaren eskutik.

- ekainak 1 (igandea), 12:00
- Kandido Saseta plaza (Hondarribia)



LURRARI BIRA EMATEA AHAZTU ZITZAIONEKO A ipuin kontaketa

Miru ipuin kontalariaren eskutik, 3 eta 8 urte bitartekoentzat.

- ekainak 4 (asteazkena), 18:00
- Zuloaga Etxea (Hondarribia)



GORA HERRIAK jaialdia

Bixi-Bixi kultur elkarteak antolatutako ekimena. Musikaz, dantzaz eta kulturaz josita.

- maiatzak 27 (asteartea) - ekainak 7 (larunbata)
- Donibane



PASAIKO DANTZA FESTIBALA

Dantza eskolen eta elkarten parte-hartzek osatutako 17 ekitaldiko programazioa. Ibaiondo Zabalgunea eta Gure Zumardia berriz ere ekitaldien eszenatoki bihurtuko dira.

- ekainak 5 (osteguna) - 8 (igandea)
- Antxo



DIMISIOA irakurketa kluba

Irakurketa Klubeko solasaldi irekia Juan Luis Zabalarekin “Dimisioa” liburuaren inguruan. Egungo politiken biharko agertoki posibleak dira Juan Luis Zabalak zientzia fikziora egin duen hurbilpenean irudikatu dituenak.

- ekainak 13 (ostirala), 19:00
- Trintxerpeko liburutegian